



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-03-07**

VIII. URTEA 1946. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**ELIXABET EIZAGIRRE** TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEA

## «Meritu handia dute 35 urtez modu horretan bizi izan direlako»

**TOLOSALDEA** Leaburuko gazteak hilabete igaro du saharar errefuxiatuen kanpalekuetan

**EKIMENAK** Hilabete honetan zehar sahararren aldeko bi ekitaldi izango dira; pilota partida eta bertso saioa 4-5



Tolosan, Zerkausiaren ondoan, murala margotzen aritu ziren atzo arratsaldean. E. EZEIZA

## PREST DA ESKUALDEA MUNDU MARTXARI HARRERA EGITEKO

**GIZARTEA** Bihar izango da Emakumearen Nazioarteko Eguna, baina asteburua aprobetxatuz ekitaldi ugari izan dira 6



Zuhaitzak landatu eta gero loretxo bana oparitu zieten bertaratutakoel. E. EZEIZA

## Astigarrak eta magnoliak landatu dituzte Zuhaitz Eguna ospatzeko

**TOLOSA** Lizardi plazan aritu ziren lanean bai Udaleko zinegotziak eta baita haur ugari ere 7

## Jon Jaunarena klubaren arteko bere mailako txapelduna

**LEITZA** 22 urte azpikoen mailako saria eskuratu du Beotibarren Urionari 22-3 irabazi ostean 6

## Lehen sektorearen etorkizuna bermatzeko, berdintasuna!

### » Iritzia

Rosa Arregi  
Amasako baserritarra

XI. mendean gaude, nork esango liguke! Lehen sektoreak Euskal Herrian inoiz ezagutu ez duen ekaitzaldia bizitzen ari da. Bortizki astintzen ari da baserritarren ilusio, itxaropen eta azken batean, bizi ereduaren lehen sektorearen antolatzeke hautua egin dugun baserritarren etorkizuna.

Hala eta guztiz ere, eta tamalez, honelako denboraldi aurre egiten ohitua dagoen sektorea dugu eta behin baino gehiagotan erakutsi du sektore honek indarrak harri azpietatik aterata aurre egin duela. Beraz gaur egun baserritar guztion batasuna ezinbesteko bezain garrantzitsua da aurrera egiteko.

Egoera honetan beste behin ere iritsi zaigu martxoaren 8a, Ema-

kume Langileen Nazioarteko Egun handia. Baina ozen baino ozenago esan nahi dugu ez dugula egun baten beharrik adierazteko emakumeak lehen sektorearen parte aktibo garea. Nahiz eta itzalean egon hor gaudela eta langile eskubideen errekonozimenduan eta berdintasunaren izenean jo eta su jardungo dugula.

Honela hausnarketa txiki bat egin gabe ezin utzi aurtengoa eta eta beraz, hor doa!

Amona, ama, alaba, ahizpa eta abarren eskutik eskura igaro dira baserrietako bizipenak, esperientziak eta lanak. Armonia eta oreka justu batean murgildurik, inguruko baliabideak erabiliz eta salmenta zuzenaren bidez ekoizturiko elikagaien prezioak erabakiz tokiko elikaduraren arduradun bilaketzen ziren.

Baina erotu da mundua! Eta eromen honetan hor dago emakumea, baserrietako ardatz, egu-

neroko lanarekin bilakaera honi aurre eginez, ikasiaz, elikagaiak eraldatuz, salmenta bide alternatiboak bilatuaz, tunel honetan argi-izpi txiki horri segika, indarrez ezkututik argira atereaz poliki bada ere aurre eginaz.

GURE BIRRAMONA, AMONA ETA AMEN ereduari indarrez eutsiaz.

Bai baserrietako ardatz! Horrela ikusi nahi ez duen sistema patriarkal honi aurre eginaz. Aurpegi aurpegi jarriaz.

Emakume bakoitzetik, norberarengandik, hasten delako iraultza eta aldaketa.

Gizarte ustel hau goitik behera aldatzeko parte aktibo garelako, berdintasunean eta burujabe bizi nahi dugulako eta horretarako gurea den honetan, elikagai, natura, ingurune eta herrien defentza sinestun dugulako ERABAKIAK GUREAK IZAN BEHAR DUTE!

## Emakumeok borrokara!

### » Iritzia

Olatz Amiano  
Tolosaldeko LAB

Aurtengo martxoaren 8a krisiaren eraginak baldintzatutik datorrigu. Orain arte emakumeon lan baldintza eta egoera prekarioak izan badira, krisiak areagotu egin du emakumeon prekarietatea, izan ere sistema kapitalista patriarkal dirauen bitartean baztertuak eta diskriminatutako egotera kondenatuak gaude.

Krisiak gizonen lan baldintzetan gehiago eragiten duela entzun dugu hamaika aldiz komunikabideetan. Errealitate tik ezin urrunago. Berriz ere emakumeon errealitatea isilarazi eta ezkutuan geratu da.

Emakumeon lan baldintzekiuzgarritzako eraso jasan dituzte krisialdi honetan. Emakumeok gehiengo garen sektoreetan moztorturiko EREak izan ditugu, jardunaldia eskandaluzko modu batean jaitsiz (garbiketa, jangelak... kasu). Estatistiketan ez gara azaldu. Enpresek gastuak murrizteko lehen neurri bezala azpikontratazioa murriztea izan dute, berriz ere emakumeak gehien garen sektoreetan eraginez.

Gainera, inbertsio publikoa ez dajendartearen ongizatean, azpiegitura sozialean inbertitu (zaintza,

hezkuntza, osasungintza, gizarte babesa...), krisiak eraginiko sektoreetan baizik. Horrek emakumeon lan karga ordainsaririk gabe handitzea dakar emakumeok jendartearen zama hori leuntzen dugun heinean.

Emakumeok eta jendarte osoak oro har lan eta bizi baldintza duin eta justuak nahi baditugu sistema kapitalista patriarkal hau suntsitu eta aberastasun banaketan oinarrituriko jendarte sortu beste biderik ez daukagu. Erasoak gero eta handiagoak izango dira (lan eta pensio erreforma, adibidez), eta horrek antolatzeke eta borrokatzeke beharra argi uzten du aldaketa estrukturalak gauza daitezten.

Horregatik Mugimendu Feministak oro har Emakumeon Mundu Martxo Plataformak deituriko mobilizazioetan parte hartzea dei egiten zaituztegu emakume guztiok. Tolosaldean Martxoaren 8an 19:30ean elkarretaratztea izango da Triangulon, eta lehenago, 12:00etan, manifestazioa izango da Donostiako Boulevard-etik abiatuta. Martxoaren 11an 18:00etan Tolosako Zerkausian ongi etorria egingo diogu Mundu Martxari. Martxoaren 13an, Mundu Martxari bukaera emanaz manifestazio nazionala burutuko dugu 12:00etan Iruñean.

GORA EMAKUMEON BORROKA!

## Prekarietatea

### » Iritzia

Tolosaldeko ELA

Emakumeen egoera definituko duen hitzik bada, prekarietatea da hitz hori. Prekarietatea bezekoa du sistema kapitalistak eta patriarkalak.

Emakumeak, esparru pribatuaren ardura nagusia izateaz gainera, lan merkatuan ere sartu dira, baina beti ere zaintza lanak dakarren zama erantsia gainean mantenduz. Prekarietatean daude lanmerkatuan eta beren bizitza pertsonalean.

Emakumeok, gizonekin alderatu gero, egiturazko diskriminazioan eta desberdintasun egoeran bizi gara, beraz.

Lan sexuaren arabera banatuta dago, eta horrek bereizteke sustatzen du emakumeak egiten duten lanaren (zaintza) eta gizonen egi-

ten dutenaren (produktibo) artean.

Emakumeak egiten duen lana gizonak egiten duenaren azpian dago orokorrean eta balio ekonomiko eta sozial baxuagoa du.

Garai hauetan bizi dugun krisiak langile-klase guztiari eragin dio, baina emakumeok aparteko ondorioak pairatzen ditugu.

Gure egoera larriagoa zenez abiapuntutik, krisiak maila baxuagoan utzi gaitu berriro ere: langabezi tasa altuagoa, soldata diskriminazioa, aldi baterako kontratazioa...

Krisiak eragin ikusezinak ere baditu, eta hor josten du batez ere emakumea: galdu den aldi baterako enpleguaren portzentajerik handiena emakumezkoena da, zerbitzuen sektorean batez ere. Beste eragin oharkabe bat ezkutuko ekonomian dago, eta eragin hori ez da estatistika ofizialetan jar-

sozten. Modu berean, gastu publikoaren gutxitzea eta gizarte zerbitzuen murrizketa ere emakumeen bizkar egingo da berriro ere. Krisiaren ondorio lazarrien aurrean emakumeok jarraituko dugun gizartearen eragin hori leuntzen.

Egoera hau gairidituzko sindikatuok daukagun tresnarik eraginkorrena negoziazio kolektiboa da: emakumeak enpresetan antolatuta eta lan baldintza duinak lortzeko borrokatu.

ELAn indarrean daukagun eta izan ditugun grebarik luzeenak emakumeenak dira (Ariznavarra, Aldakonea, Sabeco eta abar luze bat).

Patronalarentzat emakumeon prekarietatea ezinbestekoa da bere etekinak mantentzeko. Lortzeko izateko greba luzeak mantendu beharrean gaude, baina ez dugu etsiko! Gora emakumeon borroka!



Afariak eta bestelako ekitaldiak egiten dira urtero martxoaren 8a dela eta; irudian Altzoko emakumeek orain bi urte egindako afaria ikusi daiteke. HITZA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskalduna arratsaldetan, gauean edo asteburuetan lan egiteko prest dago. 688-651245.

■ **Etxeko lanak.** Eskualdeko emakumea goizez etxeko lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 600-716476.

**elduain**  
taberna-jatetxea

Eguneko menuak  
Astebukaeran menu bereziak  
Plater konbinatuak  
Ogiartekoak

Elduain Igandea, 1  
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)  
Tel. 943 68 33 27

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## G Gutunak

### Zorionak Usurbil!

Zorionak Usurbilgo herriari joan den asteburuan egindako herri galdeketa atez ateko hondakinen kudeaketa sistemari eman dion babesarengatik, nahiz eta zenbait komunikabide indartsuek eta hainbat politikoez gezurra eta desinformazioa zabaldu lotsagabeki.

Zorionak sistema hau bultzatzen aritu diren elkarteei, talde ekologisteei, herritar xumei... Garbi utzi dutelako inork ondoan nahi ez duen erraustegiak baduela alternatiba, non denon osasuna den lehentasuna eta ez bakar batzuen poltsikoa.

Zorionak azkenik Usurbilgo Udalari, agindu bezala herri galdeketa egin duelako, non herritarrek aukera izan duten beren iritzia agertzeko horrelako gai garrantzitsu baten aurrean. Izan ere, ez baita ohikoa erakundeek aintzat hartzea herritarren nahia.

Gipuzkoako herri askok erakutsi dute interesa sistema honen aurrean, ea gure eskualdean ere gauza garen Usurbilek hasitako arrastoa jarraitzeko! Osasunak eta ingurugiroak eskertuko digu!  
**Ana Eizmendi.** Tolosa.



## Irakurzaletasuna sustatu nahian

**VILLABONA** ● Villabonako Fleming ikastetxeko 4 eta 5 urte bitarteko haurrek Pello Añorga ipuin-kontalariaren bisita izan zuten pasa den ostegunean. Oraindik ere aste ugari falta dira apirilaren 23ko Liburuaren Eguna ospatzeko, baina ikastetxean aurreratu egin dira eta jada hasi dira ekitaldiekin. Ipuin «oso politak» entzuteko parada izan zuten haurrek. HITZA



## Egun borobila; Reala eta zientzia

**VILLABONA-ZIZURKIL** ● Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH5. mailako ikasleek *Erreala-Amets* bat irteera egin zuten pasa den asteazkenean. Goizean, Zubietara joan ziren, eta bertako instalakuntzak ezagutu ondoren, jokalarien entrenamendua ikusi zuten. Belar artifizialeko zelaian apur bat jolastu ondoren, Iñigo Sarasola eta Carlos Martinez jokalariekin solasean egoteko aukera ere izan zuten. Arratsaldean, Kuxaespaziora joan ziren eta Planetarioan *Kometa hegalaria* filma ikusi zuten. Azkenik, areto desberdinetako esperimentuak ikusi eta frogatzeko aukera izan zuten. HITZA

## Eguraldi ona lagun

**Azoka** » Aurtengo elurteei esker neguko barazkiak «momentu aproposan» daude; udaberrikoak zertxobait atzeratuko dira.

**PABLO ALBERDI**

Eguzkiak asko animatu zuen atzoko azoka eguna Tolosan. Goizeko lehenengo orduetatik ikusi ahal izan genituen erosleak eta bisitariak postuetan, eta eguerdi aldera giroa oso alai zen. Aipatzeko da atzo ikusitako zuhaitza kopurua Atari kaleko postuetan. Gehienbat

fruta-arbolak ziren, mota guztieta-koak; sagarrondoak, udareondoak, irisagarrik, kiwiak edota gerezondo eta aranondoak.

Zerkausian ikusitako barazki guztiak negukoak ziren eta oso hotuak zeuden. Aurtengo elurteek asko lagundu dute arlo honetan, eta nahiz eta udaberriko barazkien produktzioa zertxobait atzeratu, neguko oraindik oso momentu aproposan dago.

Sumatzen ari garen aldaketek badirudi ispilua ere izango dutela basoetan, datozen asteetako aurtengo lehenengo zizak ikusiko baititugu.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.	Baratzuri freskoa	1,00	-
<b>Landareak</b>			Azenarioa	1,20	5,00

Azalea	7,00	10,00
Dipladenia	10,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Ziklamena	5,50	-
Salbia	1,00	1,20
Zainzuria	2,80	-
Erromeroa	4,00	6,00

### Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxugak	0,50	0,60

### BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak potean	9,00	-

Fruta		
Kiwi	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Matxakanak	5,00	-
Urra	2,00	3,00
Pikua	3,00	-
Errezil sagarra	2,00	4,00

### Besteak

Arrautzak	2,50	3,00
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500 gr)	3,60	-
Gazta berria	3,60	-
Ardigazta	14,00	24,00
Irisagarra	17,00	-
Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Ogi biologikoa (500 gr)	2,20	-

### Barazkiak (sorta)

Tipula	0,80	1,00
Tomatea	3,00	-
Kayote	3,00	-
Krones	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-
Patata	1,00	1,50
Espinaka	2,00	-

### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00
Baratzuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxiroak	2,40	-
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Azukrea	3,35	-
Arroza	1,90	2,00

## H Hilberria

### JUAN IZTUETA IRISARRI

Atzo hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goianbego-

Arima zuzendaria: Javier Ormazabal; emaztea: Joxepi Arin; seme-alabak: Jon eta Arizta Galparsoro, Arkaitz; gurasoak: Demetrio eta Fernanda (+); anai-arrebak: Asun eta Ignacio Arrieta, Angel eta Juan Labayan, Esteban eta Tere Dorronsoro, Koldo eta Beatriz Eizmendi, Fernando eta MF Rosario Sukia, Amaia, Miran eta Omar Ben Mikoudi; ezkon anai-arrebak: osaba-izebak, ibabak, lehengusak eta gainerako ahaidedek.

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Andre Mari Jasokundearen parroki elizan, gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, eskerrik asko guztioi.



**OHARRA:** Gorpua Beasaingo Goierri Belatokiaren egongoda.

**ORDIZIAN**  
2010eko  
martxoaren 7an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



# Hasi dira bazterrak more kolorez tindatzen

**Gizartea** » Asteburua aprobetxatuz Emakumearen Eguna ospatzeko bazkariak eta afariak izan ziren nagusi.

## ERREDAKZIOA

Bihar izango da Emakumearen Nazioarteko Eguna, baina asteburua probestuz atzokoan ere ekitaldi ugari izan ziren eskualdean. Alegian eta Berrobin afariak egin zituzten, eta Alegian dantzaldia ere izan zuten, gainera. Ikaztegie-

tan, aldiz, bazkaria egin zuten Begiristain sagardotegian. 15 bat pertsona bildu ziren eta «oso giro» ona izan zutela argitu zuten.

Zizurkilen Oiasso museo erro-matarra eta Santa Elena ermita ikustera joan ziren, eta ondoren, Hondarribian bazkaldu zuten.

Tolosan bere aldetik, goizean Emakumeen Mundu Martxako informazioa banatzen aritu ziren Triangulo plazan eta arratsaldean mural margoketa eta trikipoteoa izan zituzten, Oargi elkartera afal-tera joan aurretik.



Ikaztegiatan Begiristain sagardotegian bildu ziren aldarrikapen eguna ospatzeko. HITZA

## » GAURKO ETA BIHARKO EKITALDIAK

### Alegia

■ **Martxoak 8, bihar.** 19:00etan elkarretaratzea herriko plazan.

### Alto

■ **Martxoak 8, bihar.** 20:00etan udaletxeko Ekintza Aretoan ikus-entzunezko bideo emanaldia.

### Amezketza

■ **Martxoak 8, bihar.** Elkarretaratzea Abaltzisketako bidegurutzean 19:30ean. Bestetik, Guraso elkarteak afaria antolatu du Zalbide sagardotegian 20:30ean. Jubilatuek merienda antolatu dute Arkaizpe tabernan 17:30erako.

### Anoeta

■ **Martxoak 8, bihar.** 18:00etan udaletxean, *Emakumeak, isilpeko urteak* proiektioa.

### Elduain

■ **Martxoak 8, bihar.** 20:30ean, afaria Kontzeju tabernan.

### Gaztelu

■ **Martxoak 7, gaur.** 14:30ean bazkaria Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkarteak.

### Ikaztegieta

■ **Martxoak 8, bihar.** 19:00etan elkarretaratzea udaletxe aurrean. Ondoren Herrigintza elkarteak *Las chicas del calendario* filma.

### Irura

■ **Martxoak 8, bihar.** 17:30ean, Haur txokoa, *Aurorita beti polita* ipuin-kontalaria.

### Leitza

■ **Martxoak 8, bihar.** Elkarretara-

tzea 20:00etan Lopeneko biribil-gunean. Amazabal Institutuan, berriz, 10:15ean *Gona gorontzak* bideo emanaldia izango dute eta ondoren elkarretaratzea egingo dute.

### Tolosa

■ **Martxoak 8, bihar.** 19:30ean elkarretaratzea Triangulo plazan.

### Villabona

■ **Martxoak 8, bihar.** Pintura erakusketaren inaugurazioa 18:30ean, Gurea Zinemako erakusketak gelan.

### Zizurkil

■ **Martxoak 8, bihar.** Eskulanetan aritzen diren emakumeen erakusketaren inaugurazioa 19:30ean, Kultur Etxean.



Zerkausi inguruan banatu zuten Mundu Martxako informazioa. E. EZEIZA



## Klubaren artekoan, Jaunarena garaile izan da

**PILOTA** » Euskal Herriko Klubaren Arteko Txapelketako 22 urte azpikoen mailan Jon Jaunarena leitzarra izan zen garaile atzo. Asteburu honetan eskualdeko beste lau pilotari ere ari dira txapelketan jokatzeko. Beotibarren Uriona markinarra izan zuen aurkari, eta erraz irabazi zion. 22-3ko emaitzarekin Aurrera elkartearen pilotaria izan zen irabazle. Nahiz eta partida zaila aurreikusi, eskualdekoak beste behin ere oso maila ona duela erakutsi zuen. E. EZEIZA



## Gutxigatik ez du irabazi Kutxa saria Arozenak

**PILOTA** » Nagore Arozenak ezin izan du eskuratu Kutxa saria. Atzo arratsaldean jokatu zen Beotibar pilotalekuan Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusiko finala eta 3. eta 4. postuak. Azken honetan aritu zen lizartarra. Lehia estua izan zen Muneta-Serre eta Etchelecu-Arozena bikoteen artean, baina lehendabizikoak gailendu ziren 27-30eko emaitzarekin. E. EZEIZA



Atzo goizean, Lizardi plazan hamabi zuhaitz landatu zituzten ikasle eta udal ordezkarien artean. E. EZEIZA

## Aitzurra eskuetan hartuta ospatu dute Zuhaitz Eguna

**Tolosa** » Atzo goizean Lizardi plazan 12 zuhaitz landatu zituzten ikasleek eta udal ordezkariak; tailerra ere egin zituzten.

### ERREDAKZIOA

Urtaroz aldatzeko eta negua atzean uzteko bi aste besterik ez dira geratzen, baina atzo, dagoeneko, udaberri giroa nabaria zen Tolosan. Zuhaitz eguna ospatu zuten atzo, eta eguraldiak apropos egin balu bezala, eguzkia eta tenperaturara goxo izan ziren nagusi goiz guztian zehar.

Goizean, hasteko, gymkana egin zuten lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek. Ukimenari buruzko tailerra, hitz jokoak, txapa tailerra, usaimenari buruzko tailerra eta abar izan zituzten, herriko gune ezberdinetan.

12:00ak inguruan, gazte ugari hurbildu ziren Lizardi plazara, zuhaitzak landatzeko. Udal ordezkarien eta ikasleen artean 9 astigar eta hiru magnolia landatu zituzten. Izan ere, pixkanaka inguru horretako zuhaitzak aldatzea erabaki du Udalak, eta atzo lan horri ekin zieten. Gogotsu, aitzurra hartuta zuloa egiten eta lurra prestatzen aritu ziren zinegotziak.

Behin zuhaitzak landatuta, Tolosako ikastetxeetako ikasleek Zuhaitz Egunerako espresuki prestatutako bertso batzuk abestu zituzten. Amaitzeko, ekimenean parte hartu zutenei loretxo bana oparitu zieten, etxera eramateko.

**Itxura berria hartuko du plazak**  
Kolektorearen obrak zirela eta, Lizardi plazan egindako lanak amaitu dira jada, eta orain inguru hau birgaitzea erabaki du Udalak. Hori dela eta, plaza urbanizatu dute, eta itxura berri bat eman nahi diote.



Loreak banatu zituzten ikasleen artean; Trianguloan txapa tailerra izan zen. E. E.

Hala, atzo emandako lehen pausoren ostean, laster, «aire berria» izango du zuhaitz berriak jarriko direlako inguru guztian. Zehazki lehen aipatutako *Acer campestris* eta *Magnolia kobus*ak landatuko dira Tolosako zuhaitzia handituz.

### Aholkuak dohainik

Tolosako Udalak herritarrek etxean baratzea edukitzeko aholku praktikoa batzuk jasotzen dituen

orri bat prestatu du, eta atzo gune ezberdinetan banatu zuten. Horrela, eskuorrian agertzen diren bederlatzi aholkuekin, tolosarren terraza eta balkoiak benetako barazki eta landare aromatikoekin baratzak izan daitezke.

Aholku guzti hauekin landareak nola aldatu eta ongarritu azaltzen da eta zomorroen kontra etxeko zein erremedio erabili daitezkeen ere bai.



## «Irrien lagunak» Leidor antzokian

**Tolosa** » «Irrien lagunak» Leidorren izan ziren atzo arratsaldean. Koloretako mundu bat nola egin azaldu zien ehunka eta ehunka haurrei. Izan ere, bi aldiz igaro ziren antzokiko taula gainetik Pirritx, Porrotx, Mari Motots eta beraien lagunak. Jendez lepo bete zen antzokia, eta pailazoen, denak ere abesten jarri zituzten. E. EZEIZA



Triangulo plazan jarri zuen bere postutxo Anabel Murok. E. EZEIZA

## Ipuinak, norberaren etorkizuna ezagutzeko bideak

**Tolosa** » Ahoz Aho Jaialdiko lehen ekitaldia izan zen atzo; ipuinak irakurtzea Triangulo plazan aritu zen etorkizuna irakurtzen.

### ERREDAKZIOA

Ipuinen orakulua Tolosa izan zen atzo. Orakuluek etorkizuna asmatzeko dohaina izaten dute. Batzuek, kartak irakurtzen dituzte horretarako, beste zenbaitek, eskua, eta azken batzuk, kristalezko bolak erabiltzen dituzte.

Ipuinen orakulua etorkizunaren asmatze horretatik haratagoa doa. Atzo goizean, hainbat eta hainbat lagunei geroaz hitz egin zuten Kandelaren Argipean taldeko Anabel Murok. Triangulo plazan postutxo bat jarri zuen, eta banan-banan, jendea berarengana hurbiltzen joan zen. Orakuluarengana joaten zenak, bere buruarekiko galdera bat pentsatu behar zuten.

Baina hau ezin zuen esan. Ondoren, Anabel Murok, kaxa batean gordeta zituen ipuinen artetik bat aukeratzeko esaten zion. Bat hartuta, ipuina kontatzen zion orakuluek etorkizunaz jakin nahi zuen horri, gero bere ondorioa ateratzeko.

Beraz, ez zuen ohiko orakulu baten iragarpena egiten, bakoitzak interpretatu beharreko ipuin bat baitzen Murok kontatzen zuena.

### Ahokotasuna oinarri

Ahoz Aho Jaialdiak ahokotasuna du oinarri eta komunikatzeko hitza darabilen edonor izan daiteke protagonista. Atzokoan ipuinen orakulua izan zen, baina datozen egunetan beste hainbat arlotako lagunak izango dira.

Atsedenal ditxo baten ostean, hurrengo ekitaldiak hilaren 11n izango dira, hau da, ostegunean. Hiriko zenbait gunetan, hiru saio oso ezberdinez gozatzeko aukera izango da.



7°  
0°

GOIZA ELURRA  
ARRATS. OSKARBI  
BEROENA 8°  
HOTZENA 0°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Oharra

■ **Abaltzisketa.** Herriko Udalak argitu duenez Espainiako Gobernuak apirilaren 3an izango den itzalaldi analogikoa dela eta, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak TDT sintonizadore-ekipoa eskatzeko aukera luzatu du ondorengo baldintzetakoren bat betetzen dituzten pertsonei: 65 urte edo gehiago izatea eta II edo III graduko dependentsia izatea; %33ko ezgaitasuna edo gehiagokoa izatea eta ezgaitasun hori ikusmenarena edo entzumenarena izatea; eta 80 urte baino gehiago izatea eta bakarrik bizitzea, edo beste norbaitekin bizi eta honek ere 80 urte baino gehiago izatea. Eskaerak Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dira hilaren 22a baino lehen.

etorbidea, 2. 943 65 46 10 telefono zenbakia.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

### TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Zahar berri. **09:00.** Nonochan. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** On ein! **11:00.** Gabiri Rallya. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Eskuokin. **12:30.** Barrebusa. **13:00.** (Jarraipena). **13:30.** 16 mm. **14:00.** Artesuaga. **14:30.** Gipuzkoako kultura. **15:00.** Kiroleroa. **15:30.** Wazemank. **16:15.** Klipak. (\*12:30etik 16:15erako blokea lau orduro errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa

## A Agurrak



### Zorionak Leire!

Bihar urtebete. Zorionak eta muxu asko familiaren eta batez ere, Eñauten partez.



### Zorionak, bihar 13 urte!

Jon Salaberria (Villabona).

Familia guztiaren partetik zorionak eta muxu pila bat.

**agurrak**

urtebetetzeak  
urtezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



## Eskualdean geratu da Etxepare saria

**AMEZKETA** ■ Amezketako Mikel eta Maite Gurrutxagak jaso dute haurrentzako albumak sortzeko Etxepare saria *Alex nire munstro-lagun on-ona* lanarekin. Amezketako neba-arrebek neskato baten eta haren

lagun ikusezinaren arteko harremanari buruzko istorioa osatu zuten eta epaileen iritziz «ausarta» da irudien aldetik. Irabazleek 6.000 euro jasoko dute eta Pamielak argitaratuko du euskaraz. HITZA

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko hitza.info](http://www.tolosaldeko hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza